

# Berriketan


Debako herri aldizkaria

273. alea - 2022ko maiatza



Gurean da dagoeneko  
**XXXV. Antzerki Astea**






**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

KALITATERA  
EUSKAL  
OKELA  
CARNE DE MUCRINO  
DE CARIÑO  
DEL PAIS VASCO  
EUSKO LABEL



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**Arteondo**  
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

*Calbeton*



**JATETXEA**

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan**


Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**L&K Home**

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • inmolhome@gmail.com



**SGO**


**SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ**

Abokatu eta ekonomialari elkartuak  
Zerbitzu juridikoak  
670 411 444  
centrolegal@sgoabogados.eus

**BOHÈM**  
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA  
T 608 135 775  
E MAITE.BOHÈM@GMAIL.COM

f i



**ARENA BAR**



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko  
erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

**Zumardi**

pentsioa

Tel.: 688 800 619  
info@pensionzumardi.com  
www.pensionzumardi.com

f i

**ORAIN**

ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba

**LABATAI**  
taberna

GOSARIAK GOIZEKO  
06:00ETATIK AURRERA  
PINTXOAK, OGITARTEKOAK  
ETA PLATER KONBINATUAK,  
EGUN OSOAN ZEHAH





273. alea - 2022ko maiatza

# AURKIBIDEA



**KOLABORAZIOA | 6**  
Santiagoko Bidearen  
Lagunen Elkarte  
*Herrikoak Berriketan*  
atalean



**ELKARRIZKETA | 8**  
Ukrainatik ihesi,  
Deban babesa hartu  
duten bi familiarekin  
solasean



**ANTZERKI ASTEA | 10**  
XXXV. Antzerki Astea  
aitzakia hartuta, Goaz  
Antzerki Taldeko bi  
kiderekin *Berriketan*



**DEBARREN EGUNA | 12**  
Erraldoien Taldearen  
itzuleraz mintzatu  
gara Emili Sukiarekin;  
ospakizuna, iruditan



**GEHIGARRIA | 17**  
Debabarreneko  
32 enpresak hartuko  
dute parte BIEMH  
azokan (DKT)

**Berriketan**

**Zuhatz**  
J.L.C. Deba **euskara**  
elkartea

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatz Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Goaz Antzerki Taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maistasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-200

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN** 2171-7656

**LAGUNTZAILEAK:**



DEBAKO UDALAK



Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**GOIMEK**

**OHARRA:**

**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabete lehenengo astelehena baino lehen.

**Informatika**  
Tresneria  
informatikoa



**Elektronika**  
Osagai  
elektronikoak


**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA  
Tel: 943 19 22 63  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)



**ieraenea**  
ekodenda  
"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Telf:943 53 95 20- E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)

**k**  
kutxabank

**ME ENDAÑETA**  
muebles altzariak



**Sukalde eta etxe altzarien**  
erakusketa izugarria 3000m<sup>2</sup>

Itziaroko gaina

T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

[endaneta@mueblesendaneta.com](mailto:endaneta@mueblesendaneta.com)  
[www.mueblesendaneta.com](http://www.mueblesendaneta.com)



Hondartza ondoan  
Urte gaztitan zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



**Ostolaza, 5**  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera.

## Gaur ere etorri zara

Gaur ere egin didazu bisita. Zorionekoa ni!  
Begiradak, besarkadak, muxuak... Zu berriz ukitzeak, sentitzeak, usaintzeak, zu berriz ikusteak gauak alaitzen dizkit. Egunak argiz eta kolorez betetzen dira.

Gaur ere etorri zara. Zorionekoa ni!  
Bihotza taupaka hasten da berriz. Bizirik sentitzen naiz.

Indarberritua. Inoiz ez dakidan arren noiz bueltatuko zaren, itzul zaitez nahi duzunean.

Gaur ere egin didazu bisita. Zorionekoa ni zurekin amesten dudanean!

Maite zaitut, pirata ametsen lapurra!

E.S.

## Etxera bidea gertu!

“Etxera bidea gertu!” lelopean irten ginen maiatzaren 7an Deba-Mutriku ibilbidea egitera; salbuespen-legedia deseginez eta urruntze-politikarekin amaituz, etxera bidea gero eta gertuago dagoelako.

Ibilaldian parte hartu genuen artean 400 km gehitu genizkion Sarek duela bi urte ezarri zuen erronkari: 3.127.326 kilometro egitea, Euskal Herrian dauden biztanle adina kilometro, bizikidetzaren, bakearen eta euskal presoan etxeratze prozesuaren alde.

Urriaren 8an amaituko da ekimena eta, horretarako, mobilizazio nagusia eta jaialdi ederra antolatu ditu Sarek

Donostian, aipaturiko kilometro kopurua osatu eta urruntze-politikari amaiera emateko.

40 urte luzez ezarritako urruntze-politikarekin amaitzen hasiak gara eta isolamendua eta lehen gradua iraganean geratu dira, baina oraindik luzea da egiteko dugun bidea; 85 dira oraindik Euskal Herritik kanpo dauden euskal presoak, hirugarren gradua eta baimenak eskuratzeko bidea oztopoz josia dago eta gaur-gaurkoz gutxi dira progresio hori eskuratzeko lortu duten presoak. Oraindik ere 19 preso daude larriki gaixo espetxean eta gurasotasunak espetxean zailtasu-



nez beteriko aukera izaten jarraitzen du.

Guztion bultzadaz iritsi gara honaino eta, guztion bultzadaz, Donostiako kaleak bete eta Ilunbe txiki utzi behar dugu. Jarrai dezagun bidea egiten!

*Debako Sare*

## iritzia



MAIALEN TELLABIDE

Ez nuen uste hain zaila izango zenik. Badirudi Iruñean, eta hiri handi gehienetan, saltzen dagoenaren laurdena dagoela alokairuan. Eta nahiz eta hirurehun aukera baino gehiago ditugun, ez dugu gure etxea aurkitzen.

Hiru pertsona eta txakur bat gara, Lagun (batzuek ezagutuko duzue agian). Musikariak gara guztiak eta bakoitzarentzako gela bana behar dugula adostu dugu. Nire bikotearen eta nire logela, beste lagunaren logela, eta gela bana bikotearentzat eta niretzat. Guztira, lau. Bi bainugela, posible baldin bada, garaje plaza (oso kotizatuak hiri batean) eta erdigunetik aldentuta. Aukeran, altzariekin. Bestela, gutxienez balkoito bat. Guztia 1.200 €-ko prezioetik behera, mesedez.

Jabeek pertsona arduratsuak nahi dituzte, diru-kontu lodiekin, lanpostu egonkorrekin, ez daitezela erretzaileak izan, animiliarik gabekoak,

eta bi hilabeteko fidantza eta etxe-agentziarentzako beste hilabete bat (BEZa barne) eskatzen dituzte. Hori bai, etxea 1980koa da, orduko altzariekin, leiho gehienak ezin dira ireki, armairuak... ze armairu? Telebistarik ez, argirik ez, eta eguzkia egunean ordu-erdiz ikusiko duzu: 1.300 €, mesedez.

2008ko krisi ekonomikotik bizi-kalitatea okerrera besterik ez doala nabaria da. Gaur egunean, lanpostu egonkorra izatea ia ezinezko ikusten dut; baina ez baldin badaukat, ez daukat soldatarik. Eta soldatarik ez badaukat ez naiz alokairu baterako aukeragarria izango. Ez badaukat etxerik ezin naiteke inon finkatu. Etxebizitzen espekulazioa urrunegi iritsi da azken urteetan, onartezina da alokairu batek soldata oso baten balioa izatea. Nire generazioak ez du lan egingo bizitza bizitzeko, bizi ahal izateko baizik. Diru kontuak ez dira politak, baina guztian agintzen dute, zoritzarrez.

## Etxe bila gabiltza





## Santiagoko Bidearen Lagunen Elkarteak *Herrikoak Berriketan*

### Aterpetxearen inguruko gogoetak

Debako Geltokia aterpetxea Debako Santiagoko Bidearen Lagunen Elkarteak kudeatzen du, eta elkarte horretan Debako ostatu-emaile boluntarioak dabilta.

Alor publiko eta pribatuaren arteko elkarlanaren adibide dugu. Izan ere, hasierako inbertsioa Debako Udalak eta Elkarteak, biek, egin zuten, eta aurrerago Elkarteak osatu zuen kopurua, autofinantzaketaren bitartez.

Ostatu-emailearen funtzioa, elkarrekin funtsezkoa den pertsonarena, erromesei harrera egitea izan ohi da; beren uneko egoera fisikoaz arduraz, aterpetxearen inguruko gorabeheraz informatzea, Debako edota bideko informazioa eskuratzea, eta erromesak egindako beste edozein eskaerari erantzuna ematea.

Horretarako, ostatu-emaileak hila-beteen hiruzpalau arratsalde ematen ditu aterpetxean. Eta bere zereginak betetzeko, gainerako erromesen laguntzaz gain, Informazio eta Turismo bulegoko langilearena ere izaten du, hori baita erromesak lehenengoz hartzen dituen eta aterpetxean gaua pasatzeko dagokien plaza izendatzen diena. Langile horren papera ere oso garrantzitsua da, beraz.

Debako erromesen aterpetxea 2000. urtetik dago funtzionamenduan, eta 2014tik dago egungo lekuan kokatuta. 56 plaza ditu, nahiz eta gaur egun erdiak soilik dauden erabilgarri, pandemiaren ondorioz.

Pandemiaren aurretik, 2019an, 10.000 erromesek baino gehiagok pasa zuten gaua bertan. Hortaz, alderdi ekonomikotik begiraturaz, eta erromes bakoitzak eguneko 30 euro xahutzen dituela kontuan hartuz, horrek esan nahi du 300.000 euro ekartzen dituela Debara aterpetxe hau izateak (kopuru garrantzitsua, inondik ere).



**Bi urtetik gora itxita egon ostean, apirilaren 25ean ireki zen aterpetxea, betiere pandemia osteko muga eta baldintzak betez**

Gure jarduera hasi zenetik harrera aterpetxean hartu ditugun erromesak, aurtengoak barne, 100.000 dira gutxi gorabehera; erraz esaten da.

Kopuruak alde batera lagata, esperientziak erakutsi digu erromesari egiten zaion harrera, aterpetxearen kokagunea, herriaren erakargarritasuna, eta abar, Deba sustatzeko iruditegi ezin hobeia izan direla.

2022ko apirilaren 25ean, bi urtez baino gehiagoz itxita egon ostean, aterpetxea ireki dugu, betiere pandemia osteko mugekin (gaua pasa daitekeen egun kopurua erdira jaitsita, barnean distantziak mantenduta, eta abar).

Esan liteke egunero betetzen dela aterpetxea erromesez, beraz, elkarteak ongi betetzen du bere funtzioa.

Aterpetxea berriz ireki zenean hartutako lehena erromes frantziar bat izan zen. Ondoko irudian Onintza Régil ostatu-emailea hari harrera egiten.

Aterpetxearen eta jasotzen duten harreraren inguruan erromesek duten asebetetze maila oso altua da. Bisita-liburu bat daukagu erromesen eskura, eta bertan agertzen da jasota haien irizki edo inpresioa.

#### Bidelagun bila

Azkenik, aipatu nahi genuke, gaur egun ostatu-emaile beharrak ondo aseta ditugun arren elkarteko kideen artean, oso gustura hartuko genituzkeela ostatu-emaile berri gehiago gure taldean. Ez da ezagutza edo gaitasun berezirik behar; kolektiboa zerbitzatze-ko interesa eta hiruzpalau arratsalde erdiko dedikazioa hilabetean, hori baino ez.



## Desmond Madjitey gaztea sukaldean jo eta su



Mendata ikastetxetik iritsia zaigu berria oraintsu: Desmond Madjitey oso gogotsu omen dabilela su eta labe artean postre goxo eta bestelako jakiak ere prestatzen eta, azkenaldian, bere YouTubeko kanaletik, afizioa duenari edo sukaldean oso trebea ez denari, nahi duen orori, errezeta horiek nola egin azaltzen.

Bost urte zituenean hasi zitzaion afizioa Desmondi eta ordutik areagotu besterik ez zaio egin. Horregatik, etxe-

koek bere joera ikusita, herrian antolatu zuten sukaldaritza-ikastaro batean apuntatu zuten, hiru hilabete iraun zituena.

Orain dela bi hilabete, "La cocina de Desmond" izeneko kanala abiatu zuen YouTuben eta bertan hasi zen gustuko errezeten berri ematen eta pausoz pauso azaltzen. Orain arteko bideo guztiak gaztelaniaz izan badira ere, aurrerantzean euskarazko bideoak egiteko asmoa ere badu.

### Postreak eta bestelako errezetak

Postreak ditu bereziki gustuko gazteak, eta horien errezetak dira egiten dituen gehienak (bizkotxoa, trufak, crepak, galletak...), gainera osagai gutxirekin eta erraz egiteko moduan azaltzen ditu. Hala ere, bestelakoak ere egitera animatu zen, eta patata-tortilla edo dilisten bideoak ere igo ditu ordutik.

Hasiberria izateko, ez du batere harrera txarra izan: 300 bisitaldi baino gehiago izan ditu Desmonden bideo batek eta hamarnaka iruzkin jasotzen dituzte bere bideoek, besteak beste, egiten duena eskertuz, asko Debako gazte-txoena.

## 186 hurrek hartuko dute parte Kolorez Blai euskal udalekuetan



Kolorez Blai euskal udalekuetarako izen-ematea maiatzaren 2tik 13ra bitartean egon zen zabalik. Guztira 186 umek eman zuen izena bitarte horretan, eta matrikulazioa garaiz egin zuten haur guztiak izan dira onartuak.

Udalekuetako lehen txanda uztailearen 4tik 15era artekoa izango da eta HH 5 (2016an jaiotakoek) eta LH 1 eta LH 2koek (2015-2014) hartuko dute parte. Bigarren txanda, berriz, uztailearen 18tik 29ra izango da eta bertan LH 3, LH 4, LH 5 eta LH 6ko umek (2013-2012-2011-2010) jardungo dute. Aurreko urteetako dinamikari eutsiz, astelehenetik ostiralera egingo dira udalekuak, 9:30etik 13:00etara. Zuhatza elkarteak, Kolore Anitz taldeak eta Udalak elkarlanean antolatzen dute egitasmoa.

iritzia

## Ezer gutxi legoke...

Apirilaren amaierak Done Jakue bideko aterpetxearen irekiera ekarri digu, 2 urtez itxita egon ondoren. Eta aterpetxea irekitzearekin batera, bertan zerbitzua eskaintzen duten bolondresak ere itzuli dira aurretik betetzen zituzten eginkizunetara.

Gure herrian pentsatu baino gehiago dira bolondresei esker aurrera egiten duten talde eta entitateak. Mota guztietakoak dira, gainera. Politika mundutik hasi, kirol kutsukoetatik jarraitu, musika arloa igaro eta Parrokian amaitu arte.

Talde askok bolondresik gabe ezin izango lukete aurrera egin, ez baitago hauek egiten duten lan guztia ordaintzeko adina diru. Baina, hau horrela bada ere, askotan ez gara konturatzen zenbat lan isil eta zenbat leku-

tan egiten duten, zenbat gauza ditugun gizon-emakume hauen lanari esker.

Bolondresak ez du inoren esker onik behar izaten. Egiten duen hori gustatzen zaiolako egiten du, askotan gizartean sortzen duen onura zenbatekoa den neurtu ere egin gabe. Besteen gozamenerako edo eta gainerakoek hainbat ekintza eta jarduera izan ditzaten ematen ditu bere denboratik hainbat ordu, eta askotan, baita patrikatik dirua ere.

Ingurura begiratzen baduzu, zure gustuko jardueraren bat eskaintzen duen talderen bat ikusiko duzu seguru. Guztietan hartuko zaituzte besoak zabalik. Eta zaude ziur hauek baten parte izateak sortuko dizula uste ez duzun gozamina. Probatu ezazu!!!



ALAZNE TXURRUKA





Barbara Bondarchuk, Dasha Bondarchuk, Oksana Volosatova, Misha Volosatova eta Natalia Mamula, Debako familiaren etxean.

## “Aurretik entzun arren, gehiengoak ez genuen espero hau pasako zenik; lehen egunak eta bidaiak izugarri gogorrak izan ziren”

Hainbat errefuxiatu ukrainarrek jo dute Debara beren herriko egoera zailetik ihesi, babes bila. Herriko familiek egin diete harrera eta guk horietako birengana, Arana-Aizpurua familiak hartu dituen bi familiengana, jo dugu bizitzen ari diren esperientziaren eta inpresioen berri izateko. Natalia Mamula

**Otsailaren 24aren aurretik dagoeneko eraso-arriskuaren berri bazenuten. Nola bizi zineten egoera horretan?**

**Dasha Bondarchuk (D.B.):** Aurreko hilabeteen aurkitu nuen lehenengo lana eta gainera ez nuen politika jarraitzen, beraz, ez nuen inondik inora espero. Baina amak bai jarraitzen du, eta gainera ile-apaintzailea da eta bezero askorekin hitz egiten zuen. Egia da gerra berez 2014an hasi zela, baina guretzat izoztuta zegoen eta gure eremua oso segurutzat geneukan.

**Barbara Bondarchuk (B.B.):** Bai, bezeroetako batzuk oso estresatuta zeuden eta beste batzuk alde eginda zeuden dagoeneko leku seguruagoetara, baina gehiengoak ez zuen uste gerra posible izango zenik ere.

**Oksana Volosatova (O.V.):** Ikasle batzuk oso kezkatuta zeuden baina irakasleek esaten ziguten gerra ez zela lehertuko.

**Noiz, non eta nola jaso zenuten bonbardaketak hasten ziren berria?**

**D.B.:** Ni esnatu berri nintzen eta nire amak oso garaiz jakin zuen inbasioa hasi zela, izan ere lagun bat du Kieven aireportuaren ondoan bizi dena, eta hark esan zion. Nire nagusiak galdetu zidan ea lanera joango nintzen (batzuek ez zuten egoera sinesten), baina ama oso urduri zegoen eta, mesedez, berarekin geratzeko eskatu zidan. Nik banekien egoera ez zela normala, baina, ez dakit zergatik, ez nengoen urduri eta banekien une bakoitzean egin behar zena egiteko ekimena eta indarra aterako nuela. Martxan jarri nintzen berehala, amonari deitu eta bere etxera abiatu ginen, ez delako pisu bat etxea baizik, eta gunetik aparte zegoelako; seguruagoa izango zelakoan.

eta Barbara Bondarchuk lagun minak dira eta lehenengoaren alaba da Oksana Volosatova, umetan hainbat udatan familiaren etxera etorri izan dena; semea ere etorri da, Misha. Bigarrenaren alaba Dasha Bondarchuk da, ingelesez dakien bakarra eta interprete-lanetan aritu zaiguna.

2014an gerra hasi zenetik jende ugari etorri da Irpinera bizitzera lurralde okupatuetatik, eta izugarri hazi da gure herria. Egun 60.000 bat biztanle ditu. Kievetik 40 minutura dago eta oso eroso da bizitzeko; oso ederra zen, baina orain txikituta dago.

**Natalia Mamula (N.M.):** Lanera nindoala anaiak deitu zidan eta asko izutu nintzen, oraindik oso gogorra egiten zait momentua gogoratzea, bi hilabete pasa diren arren.

**O.V.:** Ikusten nuen hainbesteko mugimendua etxean... berehala konturatu nintzen. Korrika jantzi, maleta prestatu eta berriak ikusten jarri nintzen telebista aurrean.

**Nola erabaki zenuten zuen herrialdea laga eta hona etortzea?**

**D.B.:** Ume txikiak zituztenek, oro har, alde egitea erabaki zuten. Guk ez, guk hasieran geratzea pentsatu genuen; Irpin segurutzat geneukan, armadak babestuko zuela uste genuen, zegoen lekuan egonda. Baina laster konturatu ginen Irpin Kieverako pasabide estrategikoa zela errusiarrentzat eta bigarren astean dagoeneko hasiak ziren bonbardaketak. Bonba batek gure amonaren etxearen pareko eraikina harrapatu zuen eta haren zati bat txikitu zuen, gure lagun Elena han bizi zen. Orduan jende asko mobilizatu zen bideak garbitzen, ambulanziaz pasa zitezen zaurituei laguntzera. Natalia ere etorri zen laguntzera, eta berak bertako zazpi lagun eraman gintuen bere etxera, kanpoaldean zegoelako eta seguruagozat geneukalako. Oso gau zaila izan zen han pasa genuena. Zazpi lagun geunden gela txiki batean lotan, lurrean alfonbrak, mantak eta ahal genuena botata, hotz handia egiten zuen eta bonbardaketen



abisu-sirenak orduero ia... baina inguruan ez geneukan babeslekurik eta izuak jota pasa genuen gaua denok.

#### **Ebakuazioen inguruan asko entzun genuen hedabideetan...**

**D.B.:** Amak jakin zuen emakume eta 18 urtez beherakoak ebakuatzen ari zirela eta, bonbardaketak zirauela ikusita, Oksanak, amak eta biok alde egitea erabaki genuen. Natalia, nire amona eta Misha bertan geratu ziren momentuz egoera hobetuko zelakoan, baina azkenean kanpora joatea erabaki zuten; Igor, Nataliaren senarra han geratu behar izan zen, baina Lviven, Poloniatik hurbilago dago eta senitarteko batzuk hartu zuten etxean. Guk Poloniako muga zeharkatu eta besteei itxaron genien. Gure amonarentzat bidaia luzea izango zen hona etortzekoa, beraz, Turkian geneukan izeba batek hartu zuen etxean eta hara joan zen, baina hark ez zeukan lekurik guztiontzat; orain amonak itzuli nahi luke, baina bere etxea txikituta dago, gure etxeko leihoak hautsita eta hormak pitzatuta daude baina zutik dago behintzat. Ur eta elektrizitatearekin arazoak daude, gainera. Igor, Nataliaren senarra, itzulia da dagoeneko Irpinera laguntzera, eta bertan bizi da; seguruagoa omen da orain, baina oraindik egoera ez dela ona dio.

#### **Nolakoa izan zen hona iritsi arteko bidaia?**

**D.B.:** Trena hartu genuen Irpinetik Kievera eta gero beste bat Kievetik Lvivera, baina jende mordoa zegoen, denok zutik eta bigarrena zortzi orduko bidaia izan zen, haurrak negarrez uneoro, estresaz izututa... Han Nataliaren lagun baten etxean pasa genuen gaua, kotxez joan ginen mugara, eta oinez pasa. Boluntario batek eskola batera eraman gintuen eta dirua ere eman zigun bidaian laguntzeko. Han bi astez egon ginen beskeen zain. Trenak ukrainarrentzat Europan doan dira eta, dirua aurrezteko, trenez abiatu ginen. Polonia, Alemania, Belgika trenean lo eginez, eta gero autobusa hartzea erabaki genuen, azkarrago jarraitzeko, nahiz eta ordaindu behar izan eta boluntarioen sarea ere galdu. Bi autobus ordaindu genituen, baina Belgikakoa berandu iritsi zen eta horregatik Pariskoak galdu genuen, eta gau bat egin behar izan genuen geltokian. Bost egun iraun zituen bidaia orotara, eta lur jota iritsi ginen Donostiara. Eskerrak han Itziar eta Joxe Mari genituen zain.

Poloniatik hona iritsi arteko bidaian boluntarioek asko lagundu gintuzten, Berlinen ezezagun batek dirua emanez ere eskaini zigun bere laguntza.

#### **18 eta 60 urte arteko gizonak han gelditu behar izan dira. Zer kontaktzen dute? Zein da orain haien egoera?**

**D.B.:** Egoera ez da ona eta ezin dira handik atera pase berezia duten oso gutxi batzuk izan ezik, militarrek edo tratamendu bereziren bat behar dutenak... lan egin behar dute herrialdea nolabait mantentzeko.

**O.V.:** Lagun bat daukat bere herria errusiarrek okupatu zutenean alde egin behar izan zuena, eta ordutik ez daukat bere berririk, ez dakit ondo dagoen.

Egunero gaude telefonoari erabat lotuta haien eta familiako beste kideen berri izateko. Elikagai-hornidura badago behintzat, kanpoko laguntzari esker.



#### **Nolakoa izan da zuen egokitzapena hemen? Zein da hemen daukauen errutina?**

**D.B.:** Lehenengo astea oso gogorra izan zen, oso nekatuta geunden fisikoki eta psikologikoki eta lo besterik ez genuen egiten. Itziar eta Joxe Mariri oso eskertuta gaude momentu horietan beren hitz eta umorearekin beti saiatzen zirelako gure une hartako beheraldiari buelta ematen. Gure hemengo familiak izugarri lagundu digu, haiei esker ez balitz askoz gogorragoa litzateke dena.

Astean zehar, bi egunetan gaztelania ikasten dugu, lau ordu guztira. Euskara, berriz, etxean ikasten dugu, Joxe Marirekin batez ere, oso pozik gaude aukera horiek izateaz. Oso eskertuta gaude, era berean, hemen gerturatu zaigun jendeari, indar handia ematen digute.

#### **Irudikatzen baduzue... nola irudikatzen duzue itzulera? Nolakoa uste duzue izango dela egoera?**

**D.B.:** Hemen lan bat aurkitu nahi nuke, lagun bat ere egin dut Bilbokoa eta egokitzapenarekin asko ari zait laguntzen. Noizbait itzuli nahi nuke, baina gaztea naiz eta irekita nago edozertara.

**B.B.:** Nahiago dut ez gehiegi planifikatu etorkizuna, irekita nago edozertara, baina denok ere herrimin handia daukagu eta ez dakigu noiz edo zer egoeratan, baina badakigu noizbait itzuliko garela.

**N.M.:** Nik han dut senarra eta desiratzen nago itzultzeko.

**O.V.:** Nik Dashak bezala pentsatzen dut, gutxi gorabehera.

**“Boluntarioek asko lagundu gaituzte: babes, lo lekua, dirua emanez...”**



# “Jendeak obra profesionalak eta komertzialak nahi ditu, eta agenda kulturalak horrela programatzen dira”

Kanpoko arrazoi batek soilik, COVID-19ak, eten ahal izan zuen 2020an Antzerki Asteak 35 urtean jositako katea, inguruan sona eman diona. Aurten, “Bilakatu” obra dakar-kigu gainera Goaz Antzerki Taldeak.

Goaz... amateur beti, duela 48 urte hainbat lagunek sortu zutenetik. Euskaltzale beti, taula gainean eta behean beti euskara, lanabes eta lantzeko lur sail, ahotan hartuta. Feminista beti, emakumeen hitza eta gorputza “fokupean” argituta egon dadin bidea egin.

Lehenago eta gaurko taldekide banarekin elkartu gara horiez, antzerkigintzaren norabideaz, etorkizunaz eta bestelakoez *Berriketan* aritzeko.



Arg.: Ander Salegi

**Txarraka-txarraka Debako XXXV. Antzerki Astera iritsiak gara. Talde profesionalak eta amateurak, oso ezagun nahiz ezezagunagoak, saldoka pasa dira Debatik 35 urte hauetan. Zein oroitzen gordetzen dituzue?**

**Josu Iriondo (J.I.):** Oroitzapen oso onak eta lan gogorra. Momentu txarrak eta onak pasa ditugu, lagun asko egin ditugu, beste antzerki talde batzuekin harreman mota ezberdinak garatu, bidaia asko... Herrian ezagunak egin gara.

**Iazkoan, Fokupean Emakume Aktoreen Festibala ere antolatu zenuten, azaroan, DIT feministarekin batera lehenengoz. Zein balorazio egin zenuten egitasmoaren inguruan?**

**Irati Baroja (I.B.):** Oso balorazio positiboa egin genuen. Maila kuantitatiboan jende asko hurbildu zela nabarmenduko genuke obra gehienetara, eta maila kualitatiboan ikusi genuen euskal antzerkigintzan emakumeek eginiko obra asko daudela eta kalitate handikoak.

**“Maringurua” ere izan zenuten festibalaren baitan, emakumearen presentzia euskarazko antzerki sorkuntzan. Hausnarketarik nabarmendu al zen han?**

**I.B.:** Lehenik eta behin, esan bezala, euskal antzerkigintzan kalitate handiko lana egiten dela, eta emakume asko ari

direla bai oholtzan eta baita oholtzatik kanpo ere beste alor batzuetan. Aipatu zen oraindik ere gorputz molde berdinak ikusten ditugula: emakume zuri eta kanonean sartzen diren gorputzak. Hori ere aldatzen hasteko ordua dela uste dugu.

**Zein zen euskal antzerkiaren panorama orain dela 48 urte, taldea sortu zenean? Eta zein orain?**

**J.I.:** Momentu hartan ez nengoen taldean, baina urte haie-tan Martin Idiakez, Lukax Dorronsoro eta abarrekin taldea sortu zen. Urte txarrak izan ziren eta iparraldeko antzerkiak egiten genituen hasiera batean. Talde profesionalik ia ez zegoen orduan, eta erraztasunak genituen mugitzeko.

Dirua ez zen gure arazorik handiena, afizionatuak ginen, bakoitzak ahal genuena eginez genbiltzan. Orain, arazo gehi-go ditugu horri dagokionez, lokala ordaindu behar da...

**Osasun onean al dago antzerkigintza amateurra? Zein zailtasun nagusirekin egiten du topo?**

**I.B.:** Egia esan, ez dugu maila orokor batean hitz egiteko bezainbesteko ezagutzarik. Baina gure ingurura begiratu gero (Elgoibar, Mutriku, Mendaro...), mugimendu gutxi dagoela esango nuke antzerkigintza amateurrean. Lan handia eta polita egiten dugu, baina askotan herrian geratzen gara, eta hori plaza asko ez ditugulako izan ohi da. Jendeak obra profesionalak eta komertzialak nahi ditu eta agenda kulturalak ere horrela programatzen dira.

**“Etorkizuna guztion eskuetan dago: Udalaren, taldearen eta herritarren eskuetan, denok daukagu zeregina”**



Goazek euskal kultura sustatzeaz gain beti izan du ardatz euskara eta horren normalizazioa...

J.I.: Gure estatutuetan zehazten den bezala, euskaraz antzeztu nahi dugu eta Antzerki Astea ere euskaraz egin nahi dugu. Gure gorabeherak izan ditugu horrekin. Galdetu izan digute: "Erderaz zergatik ez?". Eta guk beti erantzun izan dugu hori bilatzen duenak beste nonbait bila dezala.

**Antzerkian formatzeari beti eman izan diozue garrantzia. Azkenaldian, esaterako, Kamikaz kolektiboko Erika Olaizolarekin zabilzate ikastaroetan jo eta su...**

I.B.: Formatzea ezinbestekoa da antzerkigintza une oro berritzen doalako, ikasitako guztia moldatu behar delako. Gainera, azken urteetan gure piezak sormen-prozesuen bidez egiten ari gara.

**Erraz esaten da, baina 48 urte mordotxoa dira kaleetan, taula gainetan, antzerki asteak antolatzen... Eta etorkizuna nola ikusten duzue?**

I.B.: Etorkizuna guztion eskuetan dago. Alde batetik Udalarengan, antzerkigintza osasuntsu mantentzeko beharrezko azpiegiturak sustatzen. Bestetik, taldearengan, taldea zaintzen eta belaunaldien arteko errelebo bat bermatzen. Eta, azkenik, herritarrongan, antzerkira hurbilduz,

bai ikusle bezala baita antzezle bezala ere.

Izan ere, atek zabalik ditugu parte hartu nahi duen ororentzat.



### \*Oharra:

Ikuskizun guztietarako sarrerak momentuan bertan erosteko aukera egongo da eta, horrez gain, sarrerak aldeztu aurretik Goaz Antzerki

## Bilakatu

### Goaz Antzerki Taldea (Deba)

Maiatzak 26 (osteguna). 19:30ean, Itziarren (Burugorri)

Maiatzak 27 (ostirala). 19:30ean eta 20:30ean, Deban GOAZen lokalean

Katu batek zazpi bizi dituela esan ohi da. Baina bizitza batean zenbat bizi izan ditzake katu batek? Mixi, Godzilla, Lola... katu bat eta horrek elkartu dituen pertsona adina istorio... dakartza lanak. Amaia Arotzena, Joseba Eskudero, Mattin Urbieta, Josu Iriondo, Irati Baroja, Itzale Laka eta Pili Litago arituko dira oholtzan, Erika Olaizolaren gidaritzapean.




## Armiarma

### Katuska Antzerki Taldea (Tolosa)

Maiatzak 28 (larunbata). 19:30ean, GOAZen lokalean

(Sarrera: 5 euro)

Ongi etorri Armiarma S.A.-ra! Lana, lana eta lana! Sar zaitetz armiarma-sarearen barruan, eta hor topatuko dituzu nagusiak eta langile xumeak, makina-gizakiak edo gizaki-animaliak, arma-fabrikatzaile umoretsuak eta coach motibatzaileak. Gauzarik zentzugabeenak gertatzen dira Armiarma S.A.n: ia-ia errealtatean bezainbeste.



## Zinemakopa

### Taupada Antzerki Taldea (Elgoibar)

Maiatzak 29 (igandea). 19:30ean, Aldats pilotalekuan

(Sarrera: 5 euro)

Zinemakopa antzezlanaren taularatuko du Taupadak. Hainbat film ezagunetako pasarteetan oinarritutako musikala dakar Debara, Edurne Lasaren zuzendaritzapean. Jose Mari Larrañagak teknikari lanak egingo ditu eta aktoreak hauek izango dira: Ibai Leon, Ohiane Gartzia, Aitor Guisasola, Nagore Cid, Sara Iriondo, Dani Zelaia, David Rodriguez, Jon Iraola, Maixux Otaegi, Ruben Markina, Sohelen Vargas eta Gorka Luna. Emanaldiak 75 minutuko iraupena izango du, eta publiko helduari dago zuzendua.



Taldearen sare sozialen bitartez ere erreserba daitzek: WhatsApp-ez, korreo elektronikoz edota Instagram bidez.



## “Eskerrak eman nahi dizkiegu jarraitzaile eta ikusleei, taldean sartu berriei, beteranoei eta musikariei; denengatik gaude hemen”



Erreleboa aurkitzeko zituzten zailtasunen berri lehendik ere iritsia zitzaigun belarrietara, baina 2019ko irailean jakin genuen ofizialki Erraldioen Konpartsak bere jarduera bertan behera lagatzen zuela. Dena den, hiru urte bete aurretik itzuli da berriz ere erraldioen taldea Debarren Egunean, lehengo kideen esperientziaz eta gazte berrien ilusioaz jantzita, gainera, oraingoan. Emili Sukia taldekidearekin aritu gara *Berriketan* itzuleraren aitzakian.



**2019ko apirilean Herrikoak Berriketan** atalean erraldioen taldeko kideek ohartarazi zuten errelebo-falta sumatzen zutela. Gazteak lortzea zail ikusten zuten antza...

Bai, hala da. Urteak egon gara errelebo faltan. Jendea ez zen animatzen. Hala ere, gure beteranoek luzaro eutsi zioten erraldoiak dantzan jartzeari.

**2019ko irailaren 28an, Euskal Jaian izan zen, azkenean, erraldioen agur hungarria. Nola oroitzen duzue?**

Nik ez nuen parte hartu, haurra sortu berria nuelako, baina ikusle gisa oso hungarria izan zen, bai. Jende mordoia hurbildu zen ikuskizunera eta oso polita izan zen. Gainera, bandarekin dantzatzea dotoreagoa da eta emozioa handiagotzen du, nire kasuan behintzat.

**Orain dela gutxi, Udalak iragarri zigun Erraldioen Konpartsa “indarberrituta” itzuliko zela Debarren Egunean. Nolakoa izan da itzulera?**

Itzulerak ederrak izaten dira beti. Kasu honetan ere hala izan da. Gazte batzuk animatu dira, bai, eta gure erraldoiak dantzan jartzeko desiratzen egon gara azken asteotan. Eta hain gazte ez garenok ere gogotsu hartu dugu itzulera.

**Oraingo taldean denok ez zarete kide berriak, ezta?**

Ez, batzuk berriak dira eta beste batzuk lehendik aritutakoak gara.

**Erraza al da erraldoi bat dantzatzea? Nola prestatzen zarete horretarako?**

Erraza da, bai. Hasieran pixka bat kostatzen bada ere, orekari puntua hartu eta musikari jarraitzea besterik ez da. Pausoak, berez, ez dira zailak. Elkarrekin geratzen gara dantzak entsegatzeko eta ikasteko.

**Solfeo edo dantza klaseak hartu ez dituztenak edo erritmo-arazoak dituztenak ere egongo ziren taldean...**

Bai, suposatzen dut egon izan direla, baina ez dut uste hori beharrezkoa denik erraldoiak ongi dantzatzeko. Beti dago

norbait arritmiko samarra dena, baina hanketara begiratu ordez, erraldoiari begiratu eta kitto, ez da nabaritzen. *Kar kar kar...* Entseguei esker denok ikasten dugu nahiko polit dantzatzen.

**Hurrengo lerroak zuenak dira.**

Eskerrak eman nahiko nituzke azken lerro hauetan. Batetik, urte hauetan guztietan izan ditugun jarraitzaile eta ikusle guztiei. Bestetik, taldean sartu berri direnei eta bertan jarraitzen dutenei. Hau da, gure erraldoiak berriz herriko kaleetan dantzan jarriko dituzten guztiei, zuek gabe ezingo baikenuke jarraitu. Baita beteranoei ere (Edurne eta Iñi, Joseba eta Anaje, Natxo eta Patri, Kauldi eta Mireni, Itzi eta Willy, Jone, Iñaki eta M. Karmen...), beraiek erakutsi zidatelako erregina dantzatzen eta horrekin disfrutatzen. Beraiekin egindako irteeretan pila bat disfrutatu nuelako, beraien taldean ongi baino hobeto onartu nindutelako eta, nahiz eta nekatuta egon, beti egon direlako prest gure erraldoiak dantzan jartzeko. Mila esker hainbeste urtetan egindako lanagatik eta hainbeste haurren ilusioak bizirik mantentzeagatik.

Eta azkenik, jakina, eskerrik asko musikariei, beraien doinurik gabe ezin elegante dantzatu!



# Harrera beroa, aspaldiko partez, asteburu osoko ospakizunari

Osasun-pandemiak bi urteko etaldia eragin bazuen ere, Debarren Eguna ohiko moduan ospatzeko aukera izan da geurean maiatzeko hirugarren asteburuan. Egitarau oparoa antolatu dute Debako Udalak eta herriko hain-

bat eragilek elkarlanean, eta herritarrek harrera beroa egin diote ospakizunari.

Bandako kideen eta Kalean Kantuzen emanaldiak, haurrentzako pista-jolasa eta margo lehiaketa, elektrotzaranga, erromeria, entzierroa, eus-

kal dantzak eta erraldoien alardea izan dira, besteak beste, aukeran; hori guztia, gainera, eguraldia lagun.

Hiru egunez luzatu den ospakizunak emandakoaren lagin bat duzue irudiotan ikusgai.





## Herritarren literatur emaria oparo dabil azkenaldian

Berriki jakin dugu Myriam Martin eta Maitane Unanueren sormen-lanen inguruan; Lukax Dorrnsororen itzulpen-lan ugarien berri ere bai; Tene Mujika bekadun liburuaren aurkezpena ere izan dugu. Hona gurean merezi duten lekua.



**Myriam Martin** *Viaje a Deba* liburuaren idazlea

**“Niretzat liburua ariketa izan da momentuan sentitzen nuen zerbait kanporatu ahal izateko”**

**Nondik eta nora sortu zaizu *Viaje a Deba* liburua idazteko nahia edo beharra?**

Buruan neukan beste proiektu bat ez zitzaidalako atera jaio zen liburu hau idazteko ideia. Eta barruan neukan amorrua edo espresatzeko beharrarengatik sortu zela esango nuke.

**Myriam ile-apaintzailea, Myriam diseinatzailea ezagutzen genituen; Myriam idazlea orain...**

Bai, nahiko polifazetikoa naiz.

Hirulaneko beste kideekin egindako pelikula motzetarako gidoiak idatzi nituen, *Iraganean josia* eta *Ipuinen mesedea* kontakizunak; horretaz aparte, ez dut inoiz idazlanik egin. Baina, egia esan, esperientzia gustatu zait.

**Liburuak dramatik eta intrigatik, bietatik, duela esan izan duzu. Deban kokatuta ondo girotzen dela esango zenuke?**

Bai, nire asmoa Deba deskribatzea zen, baina trama baten barnean, noski. Trama edozein tokitan gertatua izan zitekeen, baina nik geure herrian kokatu nuen aipatutako asmo horregatik.

***Viaje a Deba* erraz irakurtzen dela esango zenuke?**

Bai, oso erraz irakurtzen dela esango nuke. Batetik, motza delako, eta, beste-

tik, denbora gutxian gauza asko kontatzen ditudalako. Egia esan, gauzak momentuan egitea edo eskuratzea gus-tatzen zaion pertsona naiz, eta idaztera-koan ere igartzen da hori.

**Zer lortu nahiko zenuke liburuarekin zure irakurleengan?**

Niretzat ariketa izan zen, momen-tuan sentitzen nuen zerbait kanporatu ahal izateko. Nola gelditu zen gustatu zitzaidan eta besteekin partekatu nahi izan dut, besterik ez.

**Aurreneko liburua duzu hau; idazten jarraitzeko gogoz?**

Ez zen nire ideia, baina pertsona askok esan dit bigarren zatia idatzi behar dudala. Istorioa irekita utzi nuen nahita, agian, idazteko gogoia etortzen bazait, jarraipena emateko aukera izateko.

**Lukax Dorrnsoro** literatur lan klasikoen itzultzailea

**Gaztelaniazko literaturako hainbat klasiko ekarri ditu azken hiru urte hauetan euskarara**

Aspaldikoa du itzultzaile afizioa Lukax Dorrnsorok, eta irakasle aritu zen sasoiari lanarekin, Goaz antzerki taldeko kide izatearekin eta, oro har, antzerkigintzarako afizioarekin uztartu ohi zuen edozein motatako testuak zein literatur lanak itzultzeko grina. Itzulpenez gain zuzentzaile-lanetan ere aritu izan da *Berriketan* aldizkarian hura sortu zenezetik, baita albisteen erredakzio-lanetan ere. Beti euskarari eta letren munduari lotuta bizi izan da, alegia.

**Obra klasikoak euskarara**

Hala ere, urte mordotxo da jubilatua zenetik eta ordutik denbora gehiago eskaini dio itzulpenak egiteari. Horrela, azken bospasei urteetan zortzi literatur lan itzuli ditu euskarara; horietako hiru,

azken hiru urteetan itzulitakoak, argitaratuta ditu, eta, azkena, argitaratze bidean.

**Lorca, Arakistain, Samaniego eta Castro**

Argitaratutako itzulpen-lanen artean honakoak daude: 2021ean *Arimako olerkiak*, Federico García Lorcarena; 2020an *Laura*, Juan Benantzio Arakistainena; eta 2019an *Eskola olerkiak*, Samaniegoren Felix Mariarenak.

Argitaratu gabe baina dagoeneko argitaletxean du une honetan *Olerki bilduma*, Rosalía de Castrorena.

Azken urteetan itzuli eta argitaratu gabeen artean, berriz, honakoak ditu: *Aukerako olerkiak*, Rubén Daríorena; *Olerkiak*, Antonio Machadorena; *Olerkiak*, Pablo Nerudarena eta *Olerki hautatuak*,



Mario Benedettirena.

Nabarmentzekoak dira, bestalde, lehenxego itzuli zituen beste lan hauek ere: 2007an *Eredu nobelak I* eta *Eredu nobelak II*, Miguel de Cervantesenak, eta 2008an *Sonetoak*, Francisco de Quevedorena.

Hiru itzulpen horiek Hiria argitaletxeak plazaratu zituen. Azken lanak, berriz, autoekoizpenez inprimatu eta argitaratutakoak dira.

Horietako hainbat poesia dira, errima eta neurriak zaindu beharrak dakarren zailtasun gehigarriarekin.



Debako Udalak eta Elkar agitatelek antolatutako Tene Mujika bekari esker idatzi dute Estitxu Fernandez Maritxalar eta Erika Lagoma Pombar lesakarrek *M ama\* eme\* ume\** liburua. “Emozioz beterik”, urduri eta hunkituta aurkeztu zuten argitalpena joan den maiatzaren 5ean, Donostian goizean eta Deban arratsaldean (lepo bete zen udalaxeke oso bilkuren aretoan).

Aurkezpenean azaldu bezala, feminismitik eta amatasunetik pentsatu eta gauzatu dute liburua, hamahiru lekuko-

## Estitxu Fernandez eta Erika Lagoma

*M ama\* eme\* ume\** liburuaren idazleak

### Amatasunen inguruko lekukotzak jaso dituzte Tene Mujika bekari esker ondutako argitalpenean

tasun jasoz, hamaika ama eta bi aitaren testigantza bana: bikotedunak eta bikotegabeak, heterosexualak eta homosexualak, amabakarrak, adoptatzaileak, ama ez izatea erabakitakoak, ama izan ezin dutenak... “Hamahiru ahots jaso ditugu, hamahiru bizipen, eta horietako bi gizonenak dira, bai; ez genuen nahi liburua emakumeentzat bakarrik idatzia zenik ulertzea, nahi genuen liburua gizonengana ere iristea, eta bidea errazteko modu bat zen hurbiltasun hori sortzeko aitei ere ahotsa ematea”.

Luze eta sakon landu diren elkarrizketak daude liburuan jasotako narrazioen artean. “Asko zaindu ditugu elkarrizketatuak eta haiekin izandako elkarrizketak; ordu luzez irauten zuten hitzorduetan, protagonistekin egin dugu irri,

egin dugu negar, geratu gara izotz... elkarrizketa guzti-guztiak dira oso ezberdinak, milaka harimutur ezberdinekin eta itzalak eta argiak daude narrazio guztietan”, nabarmendu zuen Fernandezek.

Amei ahotsa ematea eta amei entzutea bilatu dute idazleek euren lanean, eta horretarako galdetzea izan da gakoa; askotarikoak dira jasotako esperientziak eta bizipenak, iritziak... gai asko jartzen ditu mahai gainean eta horiekin guztiekin eztabaida edo hausnarketarako gonbidapena ere badakar, finean.

Ama guztiek edota ama duen edonork izan dezake kabida liburuan. June Fernandezek hitzaurrea ez ezik, epilogo edota amatasunekin lotutako bibliografia ere badakar bere baitan.

## Maitane Unanue *Hirugarrena orduan* liburuaren idazlea

### “Ez gaude abortuaz hitz egitera ohituta, ezta loratu ez diren hazitxoei beren lekua egitera ere”

Mirari Alkortarekin batera *Hirugarrena orduan* ipuina idatzi duzu. Nola sortu zaizue ideia?

Aspalditik gustatzen zaizkigu ipuinak, batez ere album ilustratuak. Haur Hezkuntzako irakasleak gara eta, ni, ama ere bai; egunero erabiltzen ditugu. Unibertsitateak elkartuta, irakasle batek bion zaletasuna indartu zuen. Pedagogia sistemikoko masterra ere egin dugu eta bertan aurkeztu zizkiguten ipuin sistematikoa. Hortik azken bultzadaxoa.

**Abortua du gai nagusi. Heziketarako lan-tresna al da?**

Beti pentsatu izan dut heziketa etxean hasten dela, beraz, hasteko eta behin, familien tresna modura aurkeztuko genuke abortuaz hitz egiten duen ipuin hau. Kontuan izan behar dugu itzalpean egon den eta dagoen abortuaren gai hau lantzeko norberak egin behar duela bere buruarekin gutxiengo lanketa lehendabizi. Gaiak emozio asko sortzen ditu.

Hainbat sistema eta testuingurutan

erabil liteke ipuina, baina sor ditzakeen gogoeta edo emozioak kudeatzea baliteke denon eskura ez egotea; hori dela eta, sentsibilitatez eta taktuz erabiltzekoa da.

Ez da soilik haurrei zuzendua; gaia erdigunean jartzeko soilik balio badu ere gu asebeteta.

**Ama ere bazara; horrelako ipuinen premia sumatu duzue akaso?**

Ipuina idaztea erabaki nuenerako gaia aukeratuta nuen jada. Abortu bat izan nuen nik neuk eta horretaz idazteko beharra sentitzen nuen. Kontakizuna idaztea nire bizipenak ateratzeko bidea izateaz gain, abortuaren gaiari behar duen lekua eskaini nahi izan diogu. Ez gaude honetaz hitz egitera ohituta, ezta loratzera iritsi ez diren hazitxoei beren lekua eskaintzera ere. Ipuin honekin beraiena duten lekua eskaini nahi diegu: abortuari gure gizarteko errealitate bezala, eta iritsi ez diren horiei familiako kide bat bezala. Eskertza eta aitortza egiteko gure aletxoak izan da.



**“Mimatuz” izendatu duzue sorta, lehen a omen; gehiago datozen seinale?**

Mirari eta Maitane batuz, sortuz, elkartuz... hitz-joko horretatik dator izena. Bion proiektua da eta mimo handiz ari gara. Bai, lehenengoa iritsi da, baina bidean badira gehiago.

**Xabi Etzanizek ilustratu du liburua. Asmatu al du zuen hitzak janzen?**

Oso gustura gelditu gara Xabik egin dituen ilustrazioekin. Zerbait sinplea, goxoa... bilatzen genuen, baina, era berean, asko esaten duena. Xabik bete-betean asmatu du horrekin; oso ondo josi ditu bere irudiak gure hitzekin.





ANTTON AIZPURUA

## Herdoila eta goroldioa

Denboraz hezetzen direnean, kolore marroiko substantzia bat azaleratzen zaie burdin metalikoei, gaitasun mekanikoa galduarazten diena eta, denbora luzean utziz gero, burdina bera zulatze-ira iritsi daitekeena. Herdoilak burdina kolapsatzen du.

Baten batek pentsatuko zuen honez-kerro gu salbu gaudela, burdinaren eta gure propietateak oso bestelakoak direla eta herdoilak ez gaituela sekula irentsi-ko. Hala ere, ni ez nintzateke hain seguru sentituko, ez baitut uste ezeren salbuespen naizenik, beraz, zuek ere arriskuan zaudete.

Lanez gainezka eta denboraz larri nabilenetan, burua argi izaten dut, lane-rako prest eta gainerakoetarako ere adi. Inguruko gertakizunen berri izaten dut, interesa mantentzen dut bestelako gaietan eta detaile gutxik egiten didate ihes. Momentu frenetikoaren erritmora nabil, korranteak bultzatuko banindu bezala.

Eginbeharren kopurua jaisten dene-tan eta denbora gehiago dudanetan, ordea, lagungarri zaidan korrantea baretu eta denbora moteldu egin dela ematen duenetan, nor izatetik ia zer izate-ra pasa eta izan baino, egonean egoten naiz. Aberatsaren sindromea edo izango da, zenbat eta denbora gehiago izan orduan eta gehiago alperrik galdu.

Mugitzeko, aritzeko ohitura galtzen hasten garenetan, ez gara kolore marroiz azalberritzen, baina giharrak bezala gogoa ere ugertu egiten zaigu eta ezerezean kolapsatzen gara.

Ez genioke alperkeriari seduzitu gaitzan utzi beharko eta bakoitza asetzen duen horretan aritu beharko litzateke, gelditu gabe aritu. Harriek ere badakite ez badabiltz goroldioak estaliko dituela, ugerrak burdina nola.

## Itzalpeko emakumeak erakusketa ikusgai dago klaustroan ekainaren 26ra arte



Maiatzaren 19an *Itzalpeko emakumeak* erakusketa inauguratu zen Debako klaustroan. Bertan, XX. mendean errepresioa eta jazarpena pairatu zuten emakume aitzindariak dira protagonistak, tartean Tene Mujika debarra; hura hil zeneko 40. urteurrena ospatzen ari da aurten Debako Udala eta erakusketa hau testuinguru horretan kokatzen da.

Bisita gidatuak izango dira ekainaren 4, 11 eta 18an (12:00/13:00).

Ekainaren 26ra arte ikusgai izango den erakusketa prestatzen aritu direnek hartu zuten hitza irekiera-ekitaldian eta, haiekin batera, soinu-jole, bertsolari eta dantzariak beren trebeziekin omendu nahi izan zituzten garai hartan itzalpean geratu ziren emakumeak.

## Tene Mujikaren lanak digitalizatu eta herritarren eskura jarri ditu Jakinek

Jakin aldizkariak Emakume Abertzale Batzako bederatzi kideren 1.292 lan digitalizatu ditu, tartean Tene Mujika debarrarenak. Emakume Abertzale Batzaren mendeurrenean aurkeztu du egitasmoa (Debako Udalak ere lagundu du proiektuan).

Lorea Agirre Jakinen zuzendariak azaldu bezala, Jakinen euskal pentsamenduaren transmisiorako proiektu digitalaren atal berri bat osatzen dute EABko bederatzi idazleek.

Hainbat egile ezagunen obra digitalizatu eskuragarri dago bertan: Carlos Santamaria, Azkue, Villasante... eta orain Juan San Martinena dute esku artean. Agirren esanetan, hain zuzen, orain arte pentsamenduaren transmisioan gizonen lanak nabarmendu dira, baina bolumena apalagoa izan arren, "garrantzia izugarria" du emakume horien lanak, "ez zegokien eremu batean sartuz, pronostikoen kontra eta garaian esleitzen zitzaizkien lanetatik kanpo, bestelako baldintzetan" sortu

zituztelako. Horregatik uste du emakume haien lana baloratzeko ezinbestekoa dela beste begirada bat izatea: "Ezin da bolumen edo jorratutako gaien barruan soilik aztertu, garaiko errealitateak inposatzen zizkien ezinen argitan aztertu behar dugu".

2018an osatu zuten orain aurkeztu berri duten obra digitalizatzeko egitasmoa, eta Agirrek esan zuen emakumeen obrak digitalizatzen jarraituko dutela, eta abian dela "Bizenta Mogelen obratik hasi eta 1936ko gerrara bitarteko testuen digitalizazio bat. Orain aurkeztutako bederatzi emakumeen obrarekin eta etortzeko daudenekin, gure pentsamenduaren genealogia osatzen ari gara eta ezinbesteko parte bat dira, gure aurrekoa eta gaur egungo egoera ulertzeko".

Julene Azpeitia, Errose Bustintza, Karmele Errazti, Miren Etxabe, Julia Fernandez Zabaleta, Tene Mujika, Polixene Trabudua, Some Untzueta eta Elbira Zipitriaren lanak digitalizatu dituzte. [jakin.eus](http://jakin.eus) atarian daude ikusgai.



SPEAKER'S CORNER  
DE CincoDías

**sarenet**  
Conectamos con tu empresa

Seguridad para entornos de IoT Industrial

Desde 1995

**dkt**

Debarreneko  
Komunikazio  
Taldea

# Debarrena BIEMH azokan

Lau urteko geldialdiaren ostean, aurten, ekainaren 13tik 17ra bitartean, batuko dira berriz makina-erremintako ekoizle eta bezeroak BIEMH 2022 azokan. 26 herrialdetako 1.200 enpresak baino gehiagok parte hartuko dute Barakaldoko BECen, tartean Debarrenekoak ere bai, euren produktuak, berritasunak eta zerbitzuak bezeroei erakutsi eta harreman komertzialak egiteko gogoz.



# BIEMH bueltan da

DEBABARRENEKO 32 ENPRESAK HARTUKO DUTE PARTE BERTAN

AFM Makina-Erreminta Ekoizleen Elkartearen ustez, ekainaren 13tik 17ra bitartean BECen egingo den BIEMH 2022 makina-erremintaren azoka inoiz baino beharrezkoagoa da, “gaur egun bizi dugun egoera konplexuaren aurrean”. Horregatik, azken hamarkadan egon den parte-hartzaile kopuru handiena bilduko da BECen: 26 herrialdeetako 1.200 enpresa baino gehiago. “Izen-emateen kopurua eta aurten egin diren antzeko ekintza txikiagoetan atzeman dugun giro ikusgarria kontuan hartzen baditugu, BIEMHren 31. edizioko parte-hartzea historikoa izango dela aurreikus dezakegu”, diote AFMtik.

Enpresa horien artean Debabarreneko 32 izango dira: Itziar-Deba industrialdean dauden Alteyco, Chiron, Dexis, GER, Gurutzpe, Mosnic-Irudex, Tecnifuelle eta Zeatz; Elgoibarko Berkoa, Burgelu, Cometel, Danobat, Fanuc, Geminis, Ideko, IMH, Maher, Sariki, Smartpm eta Unceta; Eibarko Egasca, Izalan, JAZ Zubiaurre, Metronic, Neurtek eta Tekniker; Ermuko Blum, Cortesa, Innocut eta Havel; Mendaroko Urkunde; Soraluzeko Elesá-Ganter; eta Osintxuko Soraluze.

Parte-hartzaileak sei pabilioitan banatuko dituzte, azpisektoreka: industria-robotak, manipulazio-sistemak, kontrolerako softwareak, industria-automatizazioak, tratamenduak, osagaiak, gehigarriak... Eskualdeko enpresa gehienak lehen pabilioian egongo dira kokatuta.

Makina-erremintaren sektorea oso bizkor ari da garatzen. Hori dela eta, azterketa eta gogoeta egiteko asmoz, BIEMHk arreta berezia jarriko die berrikuntzei eta aurrerapen teknologikoei. Horrela, fabrikazio aurreratuan dabiltzan enpresek atal bereziak izango dituzte. Esaterako, 3D inprimaketan jarduten dutenak, ADDIT3D atalean elkartuko dira eta digitalizazioan espezializatutakoak BeDigital atalean.

## Hitzaldiak eta festa

Enpresek euren produktu eta zerbitzuak eskaintzeaz gain, zenbait hitzaldi antolatuko dituzte BIEMHren inguruan. Hala, nazioarteko 55 hizlarik sektoreari dagokion gaiak jorratuko dituzte: indus-



Makina-erremintaren azoka Barakaldoko BEC erakustokian. BIEMH

tria-mantenuaren berrikuntzak, automatizazioa eta robotika, eraldaketa digitala eta fabrikazio aditiboa. Horiek eta azokaren gaineko beste hainbat eduki zuzenean eskainiko dituzte BIEMH TV telebista-katearen bitartez: produktu berriak, sektoreko profesionalen lekukotzak...

Bestalde, hilaren 15ean, eta giro lasaian negozio-harremanak sustatu asmoz, BIEMH Fest izeneko jaialdia antolatuko dute Bilboko kaleetan, 19:30etik aurrera.

## Euskal industriaren oinarri

Orain dela egun gutxira arte AFM makina-erremintaren klusterreko presidentea izan den Cesar Garbalenak esan bezala, makina-erremintaren sektorean diharduten enpresak euskal industriaren oinarri dira, eta berebiziko garrantzia dute Debabarrenean. Makina-erremintak pisu handia izan du eskualdeko industriaren historian (horren erakusgarri, Elgoibarren dagoen Makina-Erreminta Museoa) eta gaur egun ere enpresa asko dira bailaran sektore horretan dihardutenak.

AFMren azken txostenaren arabera, makina-erremintaren sektoreak susperraldia bizi du pandemiak eragindako gorabeheren ondoren eta, 2021ean fak-

turazioa %18 hazi ostean (igoera 1.571,20 milioi eurokoa izan da), 2022an %7-10 igotzea espero dute. Horrela, aurreikuspenak betetzen badira, sektoreak pandemia aurreko salmenta kopuruak gaudituko ditu.

Iazko bigarren seihilekoan zailtasunak izan ziren arren (osagaien eta materialen falta eta garestitzea, inflazio-tasa handia, Txina bezalako merkatuetan sartzeko zailtasunak...), 2021ean esportazioak %23,41 hazi ziren 2020arekin alderatuz eta AEB, Italia, Alemania, Txina, Frantzia, India, Turkia, Portugal, Mexiko eta Erresuma Batua izan ziren hemengo ekoizleentzako merkatu nagusiak. Eskerak %30 hazi dira 2019ko datuekin alderatuz eta %69,2 2020koekin konparatuz gero.

Datu horiek kontuan hartuta, sektoreak baikor begiratzen dio etorkizunari, nahiz eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkak ondorioak ekar ditzakeen. Izan ere, AFMko enpresek Errusiarekin zituzten harreman komertzialak eten dituzte, baina klusterrekoek diotenez “kaltetutako operazioak ondo estalita daude eta, gainera, sektorearen salmenten %1-3 besterik ez ziren egiten Errusian, batez ere aeronautikarekin, trenekin eta energiarekin zerikusia zutenak”.

# Elesa Ganter Iberica

“GURE ASMOA DA AURTEN BISITARI KOPURU ERREKORRA JASOTZEA”

Elesa+Ganter Iberica SL Soraluzeko Mendiola industrialdean kokatuta dagoen enpresa da, zehazkiago esateko, mundu mailako osagaien merkatuan liderrak diren Italiako Elesak eta Alemaniako Ganter etxeek 1997an sortu zuten joint venturea. Filialak makinenzako osagaiak ekoizten ditu: bisagrak, imanak, erru-berak, ixteko eta estutzeko elementuak... Azken 11 urteetan, hazkunde ikusgarria izan du %750 hazita eta sektoreko lider bihurtzea lortu du Iberiar Penintsulako merkatuan.

Jesus Blanco Zuzendari Orokorraren esanetan, “pandemiaren ostean, sektorearen egoera esponenzialki hobetu da eta gaur egun enpresaren egoera oso ona da. 2021ean, gure enpresak marka historikoa ezarri zuen 8,5 milioi euro fakturatuta”. Filialak 25 urte bete dituen

honetan, lantaldea 27 pertsonakosatzen dute eta Soraluzeko lantokiak 3.000 metro karratu baino gehiagoko instalazioak ditu, gehienak enpresak duen stock zabalari eskainiak.

Blancok azaldu duenez, azken urteotan aldaketa handiak izan dira merkatuan eta lan egiteko moduetan: “Gaur egun, unean uneko eskariekin lan egiten da, bolumen txikiko baina balio erantsi handiko ekoizpenetan. Produktu merkeak Europatik kanpo egiten dira. Gero eta herrialde arraragoetara saltzen dugu, eta, gero eta konplikatuagoa da dena. Baina ez dago besterik, hau horrela da. Edo jarraitzen duzu edo hiltzen zara. Ez dago besterik”.

## Azokari begira

Blancoren ustez, ekainean BECen egingo den makina-erremintaren biurteko

azokak “funtsezko garrantzia” du sektorearentzat eta sektorearen egoeraren “adierazle ezin hobea” da, “erakusketari kopuruagatik eta bertan ezagutu daitezkeen produktu eta teknologia berriengatik”.

Aurtengo azoka arrakastatsua izango dela aurreikusten du Blancok: “Bi urteren ostean, fabrikatzaile eta hornitzaileekin harreman zuzena izateko gogo handia dago. Gure asmoa da bisitari kopuru errekorra jasotzea”. Horretarako, Elesa Ganterrek azken urteotan merkaturatu dituen produktu berri guztiak erakutsiko ditu bere Barakaldoko azokan. Zuzendari Nagusiak garbi du zein den Elesa Ganterren helburua aurtengo edizioan: “enpresaren presentzia mantentzea eta gure jarreraren sendotasuna berrestea”.




## ELESAGANTER IBERICA EN BIEMH 2022

**EZAGUTU GAITZAZU GURE STAND-EAN:**  
Ekainaren 13tik 17ra

**BEC!**  
**1 Pabiloia**  
**F21 Stand-a**





\*Ezagutu gure produktu katalogoa [elesa-ganter.es](http://elesa-ganter.es) webgunean eta **jarrai gaitzazu** hemen:    



**DESIGNED FOR ENGINEERING**

**+34 943 75 25 20**

**info@elesa-ganter-iberica.com**



# Danobat Group

DANOBATEK AEROSORGAILUEN PALAK EGIAZTATZEKO SOLUZIOA ERAKUTSIKO DU BEC-EN

Danobat Group Mondragon Taldeko kooperatiba talde arrakastatsuenetakobat da, makina-erremintaren sektorean prezisio eta tamaina handiko makinak ekoizten dituena, Danobat eta Soraluce markapean. Hornitzen dituen sektore nagusien artean aeroespaziala, tren, automobilgintza, energia, petrolio eta gasa daude. Hala, Deba bailarako taldeak 226 milioi euro fakturatu zituen eta, gaur egun, 1.300 langile ditu munduko hainbat herrialdetan zehar dituen 15 ekoizpen guneeetan banatuta: Deba bailaran, Alemanian, Erresuma Batuan, Herbereetan...

Pello Rodriguez Danobatgroupeko Zuzendari Orokorraren esanetan, makina-erremintaren sektoreak, "oro har", pandemia aurreko salmenta- eta esportazio-mailak berreskuratu ditu eta 2022ari

begira dio, urte hasierak "ekitaldi ona" iragarri duela, "merkatu nazionala eta automobilgintza zein aeronautika bezalako sektoreak moteldu diren arren". Nazioartean ere "Errusia eta Ukrainaren arteko gatazkak eragindako hornidurakateen egoera konplexua eta arazo logistikoak eta Txinako gobernuaren COVID zero politikak sortutako ziurgabetasuna gorabehera", sektoreak aurrera egingo duela uste du, "industria-sektore gehienak inbertitzen eta eskaerak egiten" jarraitzen dutelako. Danobatgroupi dagokionez, "2022ko lehen lauhileko eritimoari eutsiz gero", 2019ko datuak errekuiperatuko dituelakoan da Rodriguez.

#### Azokarako nobedadea: Endity

Zuzendari Orokorraren esanetan, BIEMH azoka "erakusleihu ezin hobe da sek-

torean dauden azken garapenak erakutsi eta sektoreko eta ekosistema osoko eragileekin elkarreragiteko ere". Alde horretatik, Zuzendari Orokorraren ustez biurtekoa aukera ona da Danobatgroupeko kooperatibek, "Danobatek, Soraluce eta Idekok, euren ibilbide zabalaren berri" eman dezaten. Gainera, aurten, "lehen aldiz", balio erantsi handiko piezen ekoizpenerako makinez gain, Endity Danobatgroupen enpresa berriak "aerosorgailuen palak egiaztatzeke eratu duen soluzioa" erakutsiko du BECen. Horixe izango da Danobatek azokara eroango duen nobedade nagusia.

Bestalde, aurten, "pertsonek eta talentuaren aldeko apustua eginez", Danobatek Working Talent Hub industria-enplegu foroan ere parte hartuko duela iragarri du Rodriguezek.



**DANOBATGROUP**

**SORALUCE** **DANOBAT**

**DOITASUNA GARA**  
**AUTOMATIZAZIOA GARA**

**Fabrikazio aurreraturako**  
**abangoardiako teknologia gara.**

**31BIEMH**  
YOU MAKE IT  
BIG AGAIN

**1 PABILOIA**  
**C-09 Stand-a**

**danobatgroup.com**

**HUMANITY AT WORK** **MONDRAGON**



## Abuztuan bueltan dator Deba-Reus topaketa

Urte gutxi batzuetako geldiuñearen ondoren, indartsu itzuliko da aurten Deba-Reus topaketa. Gurean izango da hitzordua, Deban, datorren abuztuaren 13an, eta bi herrieta-ko eragileen artean egun osoko egitaraua prestatzeko lane- tan hasita daude dagoeneko. Reusen aurkeztu berri dute ekimena, eta Deban ere egin dute jadanik lehenbiziko batzar irekia.

2016an Reusen bizi ziren hainbat debar eta euskaldunen ekimenez sortu zen Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako kulturak batzeko topaketa bat egiteko ideia eta hasierako burutzazio hura forma hartzen eta gorpuzten joan zen herri mugimenduko hainbat eragile eta kiderekin bat egin zutenean. Hori hala, *Deba-Reus komisia* sortu zen eta bi herrien arteko lotura sendotu eta kultur elkartrukea sustatzeko askotariko ekimenak antolatu dituzte azken urteotan.

Reusen bertan egin zuten lehen topaketa, 2017ko apirilean, eta Debatik 100 lagun baino gehiago bertaratu ziren hitzorduan parte hartzera. Ekimen hari jarraipena eman nahian, urte berean, urriaren amaieran, egin zen bigarren topaketa, Deban; 300dik gora lagun etorri ziren Reusetik eta guztira bi herrietako 20 eragilek baino gehiagok hartu zuten parte topaketan.

Osasun-pandemiak eragindako etengaitza gaindituta, aurten jarraipena emango zaio bi herrien arteko kohesioa indartu nahi duen egitasmoari, orain arteko bidean sortutako zubiak desagertu ez diren seinale.

Abuztuaren 13rako deituta dago hurrengo topaketa, Deban bertan, eta ekimenaren aurkezpen-jaiak egin dute dagoeneko Reusen. Pasa den maiatzaren 14an, hain zuzen ere, Debako hitzorduaren nondik norakoak iragarri zituzten prentsaurrekoan, eta egun osoko egitarauarekin jantzi zuten agerraldia: bertako taldeen erakustaldiez gain, euskal kulturaren esanguratsuak diren bestelako elementu batzuk ere presente izan ziren programazioan, hala nola bertsoak, musika, dantzak, euskal kirolak edo txalaparta (eskuin aldeko irudiak aurkezpen-egunean ateratakoak dira).

### Debako lantaldea martxan da

Abuztuaren 13an (larunbata) egingo da topaketa ofiziala eta reustarrek hainbat eguneko egonaldia egingo dute Deban. Data urrun ikusten bada ere, lanean hasiak dira dagoeneko Debako herri eragileak ere; egitarauaren zirriborro edo proposamen bat ere eskuen artean daukate jadanik. Aurreikuspenen arabera, castells erakustaldia, erraldoiak, dantza emanaldiak, bazkari herrikoia eta bestelako ikuskizunak izango dira programazioaren baitan.

Lehen batzar irekia maiatzaren 18an egin zen, baina guztia txukun antolatzeko aurrerantzean ere bilera gehiago egingo direla iragarri dute. Hori hala, topaketan boluntario bezala lan egin edota ekarpenak egiteko prest dauden herritar guztiei dei egin diete datozen aste edo hilabeteetan egingo diren bileretan parte hartzera.





**MAIATZAK 27, OSTIRALA**

-19:00. **Hitzaldia:** *Sorbeltzak: bizitza airean*, Eneko Azkueren eskutik, Turismo bulegoan.  
-19:30/20:30. **Antzerkia:** *Bilakatu*, Goaz Antzerki Taldea, Goazen lokalean.

**MAIATZAK 28, LARUNBATA**

-11:00. **Bisita gidatua Gordailura**, inguruko haitzuloetako piezak ikustera. Autobusa 10:00etan. Izen-ematea: 943 143 396.  
-19:30. **Antzerkia:** *Armiarma*, Katiuska Antzerki Taldea, Goazen lokalean.

**MAIATZAK 29, IGANDEA**

-8:30. Deba-Zumaiako **itsaslabarren garbiketa**. Izena emateko: [labur.eus/garbiketa2022](http://labur.eus/garbiketa2022).  
-19:00. **Zinema:** *La chica del brazalet*, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.  
-19:30. **Antzerkia:** *Zinemakopa*, Taupada Antzerki Taldea, Aldats pilotalekuan.

**EKAINAK 2, OSTEGUNA**

-19:00. **Irakurketa kluba:** *Los hermanos Corazón de León* (Astrid Lindg), Ostolaza liburutegian, Ainhoa Aldazabalek gidaturik.

**EKAINAK 4, LARUNBATA**

-9:00. **Merkatu txikia**, paseo estalian.

**EKAINAK 5, IGANDEA**

-19:00. **Zinema:** *Benedetta*, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

**EKAINAK 6, ASTELEHENA**

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, Foruen Plazan.

**EKAINAK 11, LARUNBATA**

-20:00. **Gau-ibilaldia**, Donostiatik Itziarren.  
-22:00. **Dantza-jaialdia**, Kulunka Dantza Taldearen eskutik, Aldats pilotalekuan.

**EKAINAK 12, IGANDEA**

-19:00. **Zinema:** *Supernova*, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

**EKAINAK 17, OSTIRALA**

-20:00. **Musika kontzertua:** *Ibil bedi*, Kultur Elkartearen (KulturEkin).

**EKAINAK 19, IGANDEA**

-19:00. **Zinema:** *Annette*, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

**EKAINAK 20, ASTELEHENA**

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, Foruen Plazan.

**EKAINAK 23, OSTEGUNA**

-22:00. **San Juan sua**, Deban eta Itziarren. *Antolatzaileek adierazi dutenez, litekeena da ordua aldatzea.*

**Pentsiodunen I. Bizikleta Martxa**

-Ekainaren 13tik 25era, Euskal Herriko Pentsiodunen ekimenez. Debatik pasako da.

**KZgunea**

-Maiatzean arratsalde zabalik (16:00-20:00) eta ekainean goizez (9:00-13:00). [kzgunea.eus](http://kzgunea.eus).

**Asentzio jaiak Endoian**

-Maiatzaren 26, 27, 28 eta 29an Asentzio jaiak Endoian. Egitaraua: [berriketan.eus-en](http://berriketan.eus-en).

...eta Debabarrenean zer? [Eskualdeko hainbat plan interesgarri](#)

**Maiatzak 27-29 ASTEBURUA > Eibar**

-Euskal Jaia. 28an, larunbata, ekimenak 10:00etan hasiko dira; eta 29an, igandea, berriz, 11:45ean, Untzaga plazan.

**Maiatzak 30, ASTELEHENA > Elgoibar**

-18:00. **Hausnarketa taldea:** *Ezetz esaten ikasi*, Loredi Salegi (Lilan). Berdintasun Sailak antolatuturik, dohainik.

**Maiatzak 28, LARUNBATA > Ermua**

-17:00. **Haurrentzako jokoak**, Jolasaren Nazioarteko Egunaren harira. Ermuko Udalak antolatuturik.



**ZAINZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: maiatzak 28, 30, 31.  
ekainak 1, 2, 17, 18, 19, 25.  
Burgoa Zuazo: ekainak 3, 4, 5, 11, 13, 14, 15, 16.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.  
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

**DEBAKO BOTIKAK**

ZALDUEGI | 669 262 201  
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 28 / ekainak 18 eta 25  
BURGOA ZUAZO: ekainak 4 eta 11



RPS:183/12

**PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK  
PROBATU  
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92



Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com  
20820 Deba, Gipuzkoa T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Inplanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

# Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

# ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



## ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU  
Beheko plaza 1 MUTRIKU  
T. 943 60 39 45


f www.facebook.com/adatsileak  
i @adatsileak

## ITURLAN, S.L.

Iturgintza-Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfnoa - Fax: 943 192 553  
fontaneriaiturlan@iturlan.com



# Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# s@soiko

ekodenda,  
dietaetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14

943 19 24 42

s@soiko@hotmail.com

## GENOVEVA

Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



LIZ.-ZK.: 3

## Taxi Alain

Deba



WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008  
alain@taxideba.eus



## Seven Clovers

Irish pub

943 191 295

# JZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



janire & maitane  
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com



**Matrikula epea zabalik  
ekainaren 17ra bitartean**

Abierto el plazo de matrícula  
hasta el 17 de junio



# DEBAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

2022-2023 ikasturtea / Curso 2022-2023

**BULEGOKO  
ORDUTEGIA:**

Astelehenetik ostegunera  
14:00 – 19:00  
eta ostiraletan 10:00 – 15:00

Astillero kalea 12. 20820 Deba  
943 19 20 16  
musikaeskola@deba.eus